



**2018KO MAIATZAREN 18KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko maiatzaren hemezortzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko maiatzaren 4an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 37 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA HAMABI MILA BEDRATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA HAMAHAZPI ZENTIMO (92.978,17 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 18-11-04 zbk.dun esped.: zerbitzua jartzea 2018ko apirilaren 25etik aurrera, astean 2 ordu, etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %24 izango da.
- 18-11-05 zbk.dun esped.: zerbitzua jartzea 2018ko maiatzetik aurrera, astean 5 ordu, etxeko garbiketa, garbitasun pertsonala eta enkarguak egiten laguntzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 16-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea maiatzeko hilabetetik, udalerriz aldatu delako.
- 16-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125 € ematetik 250 € ematera pasatzea maiatzetik irailera, eta mantentze gastuetarako hilean 46,25



€ ematetik 92,5 € ematera pasatzea maiatzetik irailera, elkarbizitza unitatean aldaketagatik. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 a da.

- 18-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125 €ko diru laguntza ematea apiriletik abendura eta mantentze gastuetarako hilean 46,25 €ko diru laguntza ematea apiriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 18-01-010 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 250 €ko diru laguntza ematea maiatzetik abendura eta mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea maiatzetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura zinegotziak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, San Prudentzio festetan antolaketa lanetan aritu diren hainbat talderi honako diru laguntzak ematea erabakitzen du:

- Oin Arin dantza taldea.- 2018ko maiatzaren 1ean XXXIII. dantza suelto txapelketa antolatzeagatik 1.922,10 €ko diru laguntza onartzea. Apirilean 1.000 € aurreratu zitzairen eta orain 922,10 € emango zaie.
- Danak Elkartea.- 2018ko maiatzaren 1ean toka txapelketaren antolaketa dela eta, 630 € diru laguntza onartzea. Apirilean 300 € aurreratu zitzaenez, orain emango zaiona 330 € izango da.
- Domarda Elkartea.- 2018ko apirilaren 30ean sardina jana eta maiatzaren 1ean bakailao lehiaketa antolatzeagatik, 3.503,30 €ko diru laguntza onartzea. Apirilean 3.000 € eman zitzairen eta orain 503,30 € emango zaie.
- Izaskun Altuna Beristain (Lazkaomendiko gazte kuadrilla).- 2018ko maiatzaren 5 eta 6an Lazkaomendin antolatutako jarduerak direla eta 1.520,60 €ko diru laguntza onartzea. Apirilean 1.125 € aurreratu zitzairen eta orain 395,60 € ordainduko zaie.

Beste alde batetik, eta San Prudentzio Jaiekin lotuta baita ere, eta Kultura Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, aho batez, San Prudentzio jaietako festa liburuxkaren portada lehiaketako irabazle gisa M^a Karmen Oria Zabala 200 €ko saria ematea onartzen du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

